

## INFORMAZIO OHARRA

### **Eusko Ikaskuntzak gizarte zibilak Europako subiranotasun gatazkei buruz duen iritzia jaso du**

*"Europar Batasuna subiranotasun gatazken aurrean: argitasun marko baterantz" izenburupean, nazioarteko eztabaida-jardunaldi bat egin da.*

**Donostia, 2022ko martxoaren 21a.** Europa gerra baten atarian dagoen honetan, gaur, aurrez aurre Donostian eta on-line formatuan egindako nazioarteko jardunaldian, Europako subiranotasun-gatazkei konponbide demokratikoa emateko bideak bilatzeko beharrean sakontzea nahi izan da.

GUE/ENGL (The Left in the European Parliament) eta RE (Renew Europe) Europako parlamentu-taldeak antolatuta eta Eusko Ikaskuntzaren babes zientifikoarekin, topaketan subiranotasun lurralde gatazkak konpontzeko oinarrien dokumentuaren azken bertsioaren inguruan hausnartu da. Dokumentu horren lehen bertsioa 2020an landu zen, Eusko Ikaskuntza eta Institut d 'Estudis Catalans erakundeak sustatuta, eta nazioarteko ibilbide ezaguneko 80 adituk baino gehiagok hartu dute parte.

Dokumentu hori gizarte zibilari zabaltzeko eta Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzian (CoFoE) aurkezteko asmoz, jardunaldia gaikako hiru paneletan egituratuta da, eta hitzaldiak zein publikoarekin hitz egiteko tarreak egon dira, baita partaidetza-dinamika bat burutu ere.

Lehenengo atala *Subiranotasun-gatazken kudeaketa demokratikoa Estatuan, Europan eta mundu osoan. Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziarako ekarpenak* hainbat ikuspegietatik gaur egungo egoeraren kokatzeko ariketa izan da. Francesco Palermok (Institute for Comparative Federalism – EURAC), planteamendu teoriko batetik, konstituzionalismoa jarri du subiranotasun-gatazkei aurre egiteko oinarritzat, baina dituen mugetaz ohartaraziz. Nicola McEwenek (Center for Constitutional Change – CCC) panorama globalari begiratu dio, eta, horretarako, politika konparatua aipatu du, Eskoziaren kasuan begirada jarriaz. Gemma Ubasartek (Gironako Unibertsitatea) eta Juanjo Alvarezek (UPV/EHU) Europa eta Estatuari so egin diote, eta, azkenik, Maite Zelaiaren (UPV/EHU) moderazioari esker, elkarrizketa bizia izan da hizlarien eta bertaratuen artean, bai on-line bai aurrez aurre.

Bigarren blokea, *Argitasun marko baterantz Europan. Oinarrien dokumentuaren edukiak* Eusko Ikaskuntzak eta Institut d 'Estudis

Catalans-ek sustatutako subiranotasuneko lurralde-gatazkak konpontzeko oinarrien dokumentuan oinarritu dira. Aurrez aurreko eta on-line partaidetzazko eztabaida-dinamika baten bidez, bertaratuek beren ekarpenak egin dizkiote dokumentuari, eta azpimarratu eta txertatu beharreko indar-ideiak nabarmendu dituzte, bai eta dokumentua ezartzeko proposamenak ere.

Azkenik, jardunaldia *Dimentsio instrumentala: Europako erakundeetan argitasun marko bat ezartzeari buruzkoa* panelarekin batekin amaitu da. Neus Torbiscoren (Graduate Institute Geneva) hitzaldia “Mapatze instituzionala: Europar Batasunak argitasun marko bat ezartzeko eskaintzen dituen aukerak” izan da. Ondoren, Europar proposatu daitezkeen ekimenei buruzko mahai-ingurua egin da, eta honako hauek hartu dute parte: François Alfonsi (Fermu a Corsica, Greens/EFA), Izaskun Bilbao (EAJ/PNV, Renew), Pernando Barrena (EH Bildu, The Left), Jordi Solé (ERC, Greens/EFA), Toni Comín (Junts a Corsica, Nop) eta María Eugenia (Palefada) europarlamentariek. Azken hau Joxerra Bengoetxeak (UPV/EHU) moderatu du.

Jardunaldian parte hartu duten adituek azpimarratu dute beharrezkoa dela Estatuaren arteko eta Estatuaren barneko gatazkak tresna demokratikoak erabilia konpontzea, eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatze aldera. Bat egin dute legalitateak bide eman beharko liokela konponbideari, baina indarrean dugun legediak – estatuetakoa edota europarrak –, ez duela bide egokirik eskaintzen herritarren eta herrien borondate demokratikoa eta eskubide eta askatasunak babes daitezzen. Horretarako, argitasun markoa ikusten dute erreminta egokitzat estatuaren baitan sortzen diren lurralde subiranotasunaren inguruko eskaera modu demokratikoan kudeatzeko. Zentzu horretan, zuzenbide konstituzionala gatazkak ekiditeko tresna bihurtu beharko litzatekela deritzote. Europako argitasun markoak aterki aproposa eskainiko litzekioke Estatu mailako legediari.

Europako erakundeek tresnak izan badituzte subiranotasun lurralde gatazkak konpontzeko behar den argitasun marko hori osatzeko. Gaur Donostian bildutako Europako Parlamentuaren ordezkariak anitzak baikorrak izateko arrazoi nahikoa ematen ditu. Horrekin guztiarekin, oinarrien dokumentua aberastuko da, eta gaurko partaidetza-dinamikaren ekarpenak gehituko zaizkio, Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzian (CoFoE) aurkeztu ahal izateko.

## NOTA INFORMATIVA

### **Eusko Ikaskuntza recoge la opinión de la sociedad civil ante los conflictos de soberanía en Europa**

*Bajo el título “La Unión Europea ante los conflictos de soberanía: hacia un marco de claridad”, se ha celebrado una jornada de debate internacional.*

**Donostia-San Sebastián, 21 de marzo de 2022.** En un momento en el que Europa se encuentra a las puertas de una guerra, la jornada internacional celebrada hoy en formato presencial en Donostia-San Sebastián y on-line, ha buscado profundizar en la necesidad de buscar vías de solución democrática a los conflictos de soberanía en Europa.

Organizada por los grupos parlamentarios europeos GUE/ENGL (The Left in the European Parliament) y RE (Renew Europe) y con la colaboración científica de Eusko Ikaskuntza, en el encuentro se ha reflexionado en torno a la última versión del [documento de bases para la resolución de conflictos territoriales de soberanía](#). Dicho documento, cuya primera versión se trabajó en 2020 y en cuya redacción han participado más de 80 especialistas de reconocida trayectoria internacional, cuenta con Eusko Ikaskuntza y el Institut d'Estudis Catalans como entidades promotoras.

Al objeto de abrir dicho documento a la sociedad civil y de enriquecerlo de cara a su presentación ante la Conferencia sobre el Futuro de Europa (CoFoE), la jornada se ha estructurado en tres paneles temáticos con exposiciones y espacios para el diálogo, así como con una dinámica participativa.

El primer bloque *Gestión democrática de los conflictos de soberanía en el contexto estatal, europeo y global. Aportaciones a la Conferencia sobre el Futuro de Europa* ha arrancado con un ejercicio de situación en el marco actual desde diferentes perspectivas. Francesco Palermo (Institute for Comparative Federalism – EURAC) desde un planteamiento teórico ha situado el Constitucionalismo como base abordar los conflictos de soberanía pero advirtiendo de sus limitaciones. Nicola McEwen (Center for Constitutional Change – CCC) ha abierto la mirada al panorama global y para ello ha aludido a la política comparada centrándose en el caso de Escocia. Gemma Ubasart (Universitat de Girona) y Juanjo Álvarez (UPV/EHU) han centrado su intervención en el ámbito europeo y estatal. Y finalmente, con la moderación de Maite Zelaia (UPV/EHU) ha habido un animado diálogo entre ponentes y asistentes, tanto on-line como presencialmente.

El segundo bloque, *Hacia un marco de claridad europeo. Contenidos del documento de bases* se ha centrado en el documento de bases para la resolución de conflictos territoriales de soberanía promovido por Eusko Ikaskuntza y el Institut d'Estudis Catalans. Mediante una dinámica de debate participativo presencial y on-line, las personas asistentes han hecho sus aportaciones al documento, destacando las ideas fuerza a subrayar e incorporar, así como las propuestas para la implementación del mismo.

Por último, la jornada ha finalizado con un bloque enfocado a su puesta en escena en el marco europeo *Dimensión instrumental: sobre la implementación de un marco de claridad en las instituciones europeas*. Neus Torbisco (Graduate Institute Geneva) ha tomado la palabra con un discurso sobre el “Mapeo institucional: Oportunidades que ofrece la UE para la implementación de un marco de claridad”. A continuación se ha dado paso a una mesa redonda sobre posibles iniciativas a plantear en el marco de Europa en la que han participado las y los europarlamentarios François Alfonsi (Fermu a Corsica, Greens/EFA), Izaskun Bilbao (EAJ/PNV, Renew), Pernando Barrena (EH Bildu, The Left), Jordi Solé (ERC, Greens/EFA), Toni Comín (Junts, NI) y María Eugenia Rodríguez Palop (Podemos, The Left), moderada por Joxerra Bengoetxea (UPV/EHU).

Las y los diferentes especialistas que han intervenido durante la jornada han subrayado la necesidad de defender que la política y el derecho deben ofrecer instrumentos para que los conflictos de soberanía –intra o interestatales– se resuelvan de forma pacífica, respetando los derechos y libertades fundamentales. Han coincidido en que los conflictos de soberanía deben ser gestionados conforme a la legalidad, pero la legalidad actual –europea, o estatal– no ofrece cauces adecuados para que la voluntad democrática y los derechos y libertades de las partes sean salvaguardadas. Para ello, ven en un marco de claridad la herramienta adecuada para atender las demandas de soberanía territorial que surgen en el seno de los estados que se gestionan de forma democrática. En este sentido, opinan que el derecho constitucional debe funcionar como instrumento preventivo de los conflictos territoriales. La existencia de ese marco europeo de claridad sería un paraguas garantista para las partes y podría servir de referencia para el derecho interno de los estados.

Las instituciones europeas tienen instrumentos para hacer posible un marco de claridad para la resolución de conflictos territoriales de soberanía, y la pluralidad de la representación parlamentaria europea que se ha visualizado en la jornada, permite abrigar cierto optimismo. Con todo, se enriquecerá el documento de bases, al que se sumarán las aportaciones de la dinámica participativa de hoy, para poder presentarlo en la Conferencia sobre el Futuro de Europa (CoFoE).